


# **MADRILEK HAUTSI EGITEN DU KALIFIKAZIO AGENTZIEKIN**

*Posted on 06/10/2015 by Naider*



Dibortzio bat balitz bezala, Madrilgo Udalak erabaki du [bere zorra baloratzen zuten kalifikazio agentziekin](#) hautsi, bere kasuan Fitch eta Standard and Poor's enpresekin. Haustura hau konsistorioak datorren urtean zor gehiago ez jaulkitzeko erabakiaren ostean dator.

Kalifikazio agentziak oso baloratzen dituzte inbertitzaileek, bai herrialdeen eta bai udalen zorra baloratzen baitute (hala eskatzen dutena) oso informazio baliotsua emanaz. Bestalde, enpresa mota hauek ere kritika gogorak jaso dituzte, are gehiago krisia piztu zen garaian, sinesgarritasunari dagokionez, batez ere Lehman Brothers estatubatuarraren leherketaren ostean.

Agentziekin kontratu hauek 20012an sinatu ziren, eta urtez urte aldian-aldian berritu ziren, eta urteko 107.521,19 euroko kostuarekin.

Manuela Carmenako udalbatzak hartutako ebazpen hau Standard and Poor's-ek zor-letraren kalifikazioa jaitsi ostean dator, behin alkateak Madrilgo udalaren kontuak ikuskatzeko zuen borondatea ofizialdu zenean.

**There are no comments yet.**